

MATADEIXEN



KURDISTANGO
IRAULTZAREN INGURUAN
ZINE-DOKUMENTAL
ZIKLOA



Maiatzak 31, 21:30tan



KURDISTAN, LA GUERRE LES FILLES

"Kurdistan, nesken gerra"

Zuz: Milène Sauloy

2016

54 min.

Emakume kurduen borroka luzaz jarraitu eta gero, Mylène Sauloy haiekien elkartu zen berriro 2015 urte amaieran, eta beren memoria urratsez-urrats berrezartzera dator hemen. Turkian duela ia 40 urte PKK-ren fundatzaileetako bat izan zen Sakine Cansiz-en inguruan sortutako erresistentzia mugimenduen oinordeko eta segida diren emakume hauek, zeinek Estatu Islamikoaren aurka lehen lerroan borrokatzen baitute, mugimendu berean -eta irribarre berarekin- berdintasuna eta paritatea defendatzen dituzte, feminismo bizigarri batez eta nabarmentzekoa den heldutasun politiko batez.

Ekainak 1, 21:30tan



MIN DÎT

"Diyarbakirreko haurrak"

Zuz: Milraz Bezar

2009

102 min.

Min Dît, hizkuntza kurduan egiten zen Turkiako lehen filma izan zen eta hautsak harrotu zituen Antalyako (Turkia) zinemaldiko *premièrean*.

Zuzendariaren hitzetan, "indarkeriari buruzko film bat da azkenean, indarkeriaren historia hemen Turkian [...] Hau, indarkeria hori gelditzea, edo, bederen hari ihes egitea nahi dieten umeen istorioa da".



NATOko bigarren armada indartsuenaren erasoak, Estatu Islamikoarenak, Irango teokraziarenak, Barzaniren saldukeria... Nola aurre egin guzti horri?

- Askatutako lurraldeetan Estatu propioaren egiturak sortu beharrean kontseilu eta komun en konfederazioa sortuz.
- Boteredunen aginduak betetzera zuzendutako indar armatuen orde z bolondresen milizia bidezko autodefentsaren bitartez.
- Emakumeak menpeko zereginetara mugatu orde z, emakumez soilik osatutako miliziekin lehen lerroko borroketan parte hartuz...

Nola da posible hori guztia? Ez al da arraroa kurduen iraultza? Edo, agian... alderantziz, horixe da logikoena, eta urtu beharrekoak gure burmuinaren gogortasunak dira, orain arte ikusten ez genuena ikusteko eta pentsaezina iruditzen zitzaiguna pentsatzeko? Kurduei buruzko pelikula eta dokumental sorta hau bide horretan urrats bat izan dadila.

<https://bagaudia.noblogs.org/>



Maiatzak 24, 21:30tan



NUR DIE TOTEN KEHREN HEIM
 "Hildakoak bakarrik itzultzen dira etxera"
 Zuz: Tina Leisch
 2015
 81min.

Tina Leisch austriako zinegile, kazetari eta ekintzaile politikoa da. Filmak herri kurduaren zapalkuntza eta errepresioa salatzen ditu, eta erresistentzia mugimenduak azken urteetan izan duen bilakaeraren berri ematen du. Halaber, Europaren, NATOren eta nazioarteko beste erakundeen itxurakeria eta Turkiarekiko duten jarrera lotsagarria agerian jarri nahi du.

Maiatzak 25, 21:30tan



MY SWEET PEPPER LAND
 Zuz: Hiner Saleem
 2013
 100 min.

Baran herri kurduaren independentzia gerrako heroia da, orain, polizia Erbil hiriburuan. Guztiaz atsekabetuta, lekualdaketa bat onartuko du motibazio bila Iran, Turkia eta Irak arteko mugako bailara batera. Legerik gabeko lurralde horretan, mota guztietako kontrabandoaren pasagune, Baran ez da makurtuko bailarako nagusia den Aziz Aga buruzagi tribalaren autoritarismoaren aurrean. Ireki berri den eskolako Govend emakume irakaslea ezagutuko du.